


Berrigara



Garai bateko Aste Santua
Prozesioak egiten zirenekoa

 Gelditu ez zaitezten mugitzen gara

Olio aldaketa

3.995 PTAtik
24,01 € aurrera

Balazta-pastilen aldaketa

4.995 PTAtik
30,02 € aurrera

Doan, 25 punturen begizko azterketa
operazio bakoitzeko

Menu horia
RENAULT Txanda eskatu barik

**MECA
BERGARA**
Erakusketa eta tailerra

Amillaga 5
BERGARA
Tf. 943 76 40 68



LAN-IRTEERA UGARI DITUEN PROIEKTUA HURRERA ZAITEZ!



Gure **Ikastoletan Batxilergoko** aukera guztiak eta **Heziketa-Zikloetan** eskaintza zabala:

Batxilergo Teknologikoa, **Eskola Politeknikoak** ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa.



Arizmendi

Larrin Plaza, 1
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)



Udaberriak ixkiña bat puskatuta dakar

Iñaki Gabilondo / Irakaslea eta kazetaria

Gaur, nire besoak ireki, arnasa gogor hartu, begiak itxi eta aireratu egin naiz haizearen in-darra profitatuz. Buruak, teiltuak, basoak eta mendiak iragan ditut eta orduan ireki ditut begiak, begirada orokor batez gure ingurunea begiratzeko asmotan.

Atzean negua ikusten dut. Bere bi-dea hartu du, berriz ere, eta badoa urrutira, bueltatzeko asmotan, noski. Guk horrela bataiatu genuelako ekarri digu milurte berri bat berarekin. Gure buruari saldu diogun esperantza laban-kor batez jantzitako milurte berri bat. Txikitatik teknologiarekin, garapenarekin, modernitatearekin erlazionatuta genekarren milurte misteriotsu eta zuri-kolorekoa. Gogoan ditut orain, negu honek utzitako eraginak; hemendik, al-titude hauetatik, atzekaldea gris kolore-koa baitut. Ematen duenez, ordenagai-luetan baino ez du eragin zuzena izan. Besterik gabe.

Behera begiratzea nahiago izan dut. Burua mugitu eta nire begien aurrean ikusten dut gure herria, gure bailara,

gure probintzia eta gure aberria. Uda-berriak harrapatua dauka ingurua, ba-dira egun batzuk harrapatu zuela. Lora-tzeko garaia etorri da, baina ixkiña bat puskatuta dauka. Hemendik oso argi nabaritzen zaio, bai.

Loratu ezinean dago udaberria bera eta berarekin gu, gizarte. Herrian jen-dea falta da. Ihesean abiatu ziren ezin-bestean eta beraiekin eraman zituzten lore koloredun eta maitatu batzuk. He-

"Banakoak ikusten ditut kalean atzera eta aurrera.

Indibidualtasun eta bakardade triste batek harrapatuta petalo bat eskuan daramatela.

Zein loretakoa den jakin gabe, agian gainontzeko petaloen bila"

rriko mendiei bizi zatiak kentzeari ekin diogu. Zauri izugarrien ondorioz orroa-ka ari da natura eta sasi-medikuek gali-pota botatzen diote zauriak estaltzeko. Baina loreak suntsitu dira eta galipota-ren aurka ari dira ezinean. Banakoak ikusten ditut kalean atzera eta aurrera. Indibidualtasun eta bakardade triste batek harrapatuta petalo bat eskuan daramatela. Zein loretakoa den jakin gabe, agian gainontzeko petaloen bila. Etxearteetan finkatzen dut nire begira-da. Leihoetan landareak daude, loreak daude, kolorea dago, bizia. Hala ere, kolore guzti horien artean gero eta gris gehiago nabaritzen dut. Etxe hutsik di-ra eta loreak ximeldu zaizkie, hil zaiz-kie, usteldu zaizkie.

Jauregiko zelaietan bi mutil ikusten ditut elkarri muxuka, maitasunez; be-raien atzekaldeko maldan bi neska gisa berean dabilta biluztasun bizi-az. Lore-ak oparitzen dizkiote elkarri, gorriak, horiak, urdinak, biziak; udaberria. San Martzialen loratu den udaberri-ko gaz-teak sortu dituen loretxoen antzerako kolorea dute.<

barruan



J. C. Larrañaga

M. Larrañaga y Cia. ko gerentea

"Saritu dutena, lbili eta Lacorren izan dugun elkartzeko joera izan da"

8.



Mikel Etxeberria

Saskibaloi jokalaria

"Zaila izango den arren, azkenean, kategoriari eutsiko diogula uste dut"

23.



Pili Arin

Irakaslea

"Beti izan naiz errebelde samarra, danetik probatzia gustatzen jat"

29.



BEKAK

Gazteria alorreko diru laguntzak.

Gipuzkoako Foru Aldundia.
•Musika, dantza, antzerkia eta zaharberritze arloetan espezializazio ikasketarako bekak.

Epea: maiatzak 15.

•Ikus arteetako eta literaturako sorkuntza eta promozioa laguntzeko bekak. Epea: maiatzak 15.

•Pintura eta eskultura alorrean zaharberritze lanak Artelekun egiteko laguntzak.

Epea: maiatzak 15.

Metodologia estatistikoak.

Eusko Jaurlaritzak, Eustat.

Estatistikarekin lotutako lizentziatura edo diplomaturak. Formakuntza eta ikerketa bekak. Epea: apirilak 23.

LEHIAKETAK

Kartel lehiaketak.

Bergarako Udala. Zumarragako Udala. Gasteizko Udala.

Kontakteta lehiaketa.

Ordiziako Kimetx Kultur eta Gizarte Taldea. Gaia librea, euskaraz zein gaztelaniaz. Epea: apirilak 30.

Instituto de la Juventud.

30 urte baino gutxiago duten artista gazteentzat. Epea: apirilak 31.

LAN ESKAINTZAK

Asteburuko prentsan agerturiko lan eskaintzen dossierra:

astero, asteazken eguerditik aurrera, Gazte Infomazio Zerbitzuko kultur etxeko panelean.

Begiraleak.

Txikizaro. 18 urtez gorako euskaldunak. Lan poltsa. Epea: maiatzak 31.

Injineru teknikoak.

Zangotzako Zerbitzu Mankomunitatea. Industria arloko edo Herri-lanetako injineru teknikoak. Lehiaketa-oposizio bitarteko plaza. Epea: apirilak 19.

EKITALDIAK

Udalekuak 2000.

Gipuzkoako Foru Aldundia. 14 eta 17 urte bitartekoentzat. Trukaketak, euskara, ingeles eta frantseseko txandak. Zozketarako izena emateko epea: apirilaren 18tik maiatzaren 10era.

IKASTAROAK

Udako ikastaroak. EHU. Mintegiak, jardunaldiak, ikastaroak. Izena emateko epea: maiatzaren 3tik aurrera.

Formazio arautugabea.

Egailan. Ikastaroak: elektronika, marketinga, administrazioa... Informazio osotua: <http://www.egailan.es>

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE
INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)
TELEFONOA: 943 77 91 57.
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna/ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

Temperaturak eta euria Bergaran

Eloso: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Eloso			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 6	11	3	6,4	12	4	-
Eguakitza 7	8	2	-	21	0	-
Zapateria 8	10	6	1,9	12	6	1,1
Domeka 9	15	6	30,2	19	8	35,1
Astelehena 10	14	3	24,5	10	7	22,9
Martitzena 11	7	5	11,2	12	7	13,8
Eguaztena 12	7	3,5	11,8	9	7	11,6

Hurrengo alean,
apirilaren 28tik maiatzaren 4ra
bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.



Miren Azkarate
16an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta
Carmen.



Olatz Alberdi
17an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Aitor.



Olatz Mateos
27an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alazne Mateos
22an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Naiara Ariz
24an 13 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Leire Sahuillo
18an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Farmaziak

Eguakitza 14:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Zapateria 15:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Domeka 16:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Astelehena 17:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Martitzena 18:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguaztena 19:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguena 20:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguakitza 21:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Zapateria 22:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Domeka 23:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Astelehena 24:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Martitzena 25:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguaztena 26:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguena 27:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Ogia

Domeka 16: Mizpildi.

Eguena 20: Ogizun.

Eguakitza 21: Konde.

Domeka 23: Mizpildi.

Astelehena 24: Ogizun.

aste santuko mezak

ERRAMU DOMEKA

11:30. Santa Marina. Meza eta erramuen bedeinkapena

12:30. San Pedro. Meza eta erramuen bedeinkapena

13:00. Santa Marina. Meza

OSTEGUN SANTUA

18:00. Santa Marina. Azken afariaren ospakizuna

19:00. San Pedro. Azken afariaren ospakizuna

20:00-22:00. Santa Marina. Taldeetan otoitzaldia

21:00. San Pedro. Ordu Santua

OSTIRAL SANTUA

10:00. San Pedro. Gurutz bidea

12:00. Santa Marina. Gurutz bidea

17:00. San Pedro. Jesusen heriotzaren ospakizuna

18:00. Santa Marina. Jesusen heriotzaren ospakizuna

LARUNBATA SANTUA

10:00. San Pedro. Oleo Santuen harrera

21:00. San Pedro. Bazko gaubela

22:00. Santa Marina. Bazko gaubela

BAZKO IGANDEA

09:30. San Pedro. Meza

11:30. Santa Marina. Meza

12:30. San Pedro. Meza

13:00. Santa Marina. Meza



Maialen Moreno
14an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitziber Gezalaga
19an 22 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Irantzu Casanellas
22an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Itziar Casanellas
25ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitziber Azagirre
19an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Iker.



Markos Iurrebaso
25ean 78 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Iker eta Aitziber.

zorion agurrak



Milagros Arregi
19an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Alabak, suhiak eta ilobak.



Gorka Forjan
14an 13 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Jasmine.



Ainhoa Mujika
18an 5 urte.
Urte askotarako!
Mikel eta Miren.



Ander Mengual
16an 11 urte.
Urte askotarako!
Mikel eta familia.

ESKER ONA

Honorio Agirregabiria Muruamendiaraz

Bergaran hil zen
2000ko apirilaren 8an,
81 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Matias Atorrasagasti Gantxegi

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Carmen Sanchez Espinosa

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Mercedes Gallastegi Txintxurreta

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Bernarda Alkorta Mujika

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

*Eskelak, urteurrenekoak eta
eskertzak eguazten eguerdira
arte hartzen ditugu.*

jaiotakoak

BERGARA
Eider Kortabarria Rodriguez
Martxoak 30
June Berraondo Labaien
Apirilak 10

hildakoak

BERGARA
Maria Kruz Urriategi Maiztegi
Apirilak 4, 84 urte
Felisa Agirre Gonzalez de Durana
Apirilak 6, 84 urte
Honorio Agirregabiria Muruamendiaraz
Apirilak 8, 81 urte



Jon Belastegi
26an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
bi arrebak.



Itsaso Igartza
24an 2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Lurdes Arregi
14an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Seme-alabak.



Espe Altube
14an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Aitor Elorriaga
20an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



Bittor Poza
14an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Lore.



Jesus Frago
15ean 62 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Garazi Agirrezabal
26an 4 urte.
Urte askotarako!
Jone, Aitor, amatxo
eta aitaxo.



Begoña Barrutia
18an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Iloba eta
familiakoak.



Mariñe Jauregi
18an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



Aitor Narbaiza
15ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



Ane Sancho
27an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeoak.



Joseba Vicente
18an 7 urte.
Urte askotarako!
Ama, aita eta Ane.



Xabier Iñurrieta
15ean 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

ANTZERKIA

► **Gorakada** taldearen **"Cita con la luna"** gaur, egukitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan. Bihar, zapatua, 17:00etan, **La luna** taldearen **"Elmer, elefantea"** umeentzako antzerkia.

MUSIKA

► **Jon Auer eta Skyward** gaur, egukitza, 22:00etan Go-Jamen.

► **Doctor Deseo** bihar, zapatua, 22:00etan Jamen.

► **Txekiako Sinfonietta Orkestra eta Abesbatza** astelehenean, hilak 17, Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

► **"Zaborretatik ateratako jostailuak"** erakusketa domekara arte Kultur Etxean.

► **Pello Alberdiren margoak** Iruñeako Molmar galerian (Curia, 18), apirilaren 19ra arte. Zapatu eta domeka arratsaldetan itxita.

LEHIAKETAK

► **Bergarako XV. Literatur Lehiaketa.** Bergaran jaito, bizi edota lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Adinaren arabera bost talde bereiztuko

ANTZERKIA

Izarretako bitakora

- Gaur, egukitza, 22:30etan
- Novedades aretoan
- Sarrera: 1.000 PTA. 750 PTA 26 urtetik beherakoek eta langabetuek

"Ikaro" antzezlanaren estreinatutako berri duen Maskarada taldeak "Izarretako bitakora" antzeztuko du gaur gauean Novedadesen. Maskarada taldea 1980. urtean sortu zen "Comicos de la legua/Kilikilariak" antzerki talde independente mitikoan ibilitako zenbait partaideren ekimenez. Ibilbide luze honetan hamaika lan antzeztu dituzte, tartean haur antzerkia ("Jimmy Pottolo eta zapataria", 1980), kaleko ikuskitzuna ("Pantzar", 1982), musikalak ("Gastibeltzaren karabinak", 1985), antzezlari poetikoak ("Gernika 16:39 H.S.O", 87) edo Oscar Wilde bezalako autore klasikoaren moldaketak ("Ernesto izatearen garrantzia", 1994) jorratuz.

Bergaran ikusgai izango dugun antzezlanaren Stanislaw Lem idazle poloniarren (1921) testuetan oinarrituta dago. Lem medikuntza ikasi eta psikologian espezializatu zen. Gaur

egun Cracovian bizi da eta literatura poloniarra irakasten du bertako unibertsitatean. Zientzia fikziozko lanak idatzi ditu, aparteko umorez eta zorrotasunez. Maskaradak aurkeztutako monologo honetan (Mikel Martinez aktorea da antzezle bakarra), Ion Tichy pilotu espazialaren eskutik, espazioan zehar, zibilizazio batetik bestera bidaiatzeko aukera izango dugu. Tichyk gure kultura eta pentsamoldea aurrez aurre jarriko ditu ustez unibertsoan bizi diren beste zibilizazio batzuekin. Ikusleek ere parte aktiboa izango dute antzezlanean. Antzezlaren girozkan ere berebiziko garrantzia dauka Jose Ibarrolak diseinatutako eszenografia.



Antzezlana Stanislaw Lem idazlearen testuetan oinarrituta dago.

dira. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 2an bukatuko da. Argibideak: 943 77 91 66.

► **Pentekoste jaietako kartel lehiaketa.** Derrigorrezko testua "2000ko Pentekoste Jaiak Bergaran" izango da. Irabazleak 100.000 pezetako

saria eskuratuko du. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 2an bukatuko da. 943 77 91 58.

► **III. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Kartelen gaia "Zezenak Bergaran" izango da eta lanak Kultur Etxean entregatu beharko dira, maiatzaren

22tik ekainaren 4ra bitartean. Irabazleak 150.000 pezeta eskuratuko ditu. 943 77 91 58.

IKASTAROAK

► **Lora eta hosto prentsatuen ikastaroa** maiatzaren



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

2tik ekainaren 10era. Klaseak martitzen arratsaldean eta zapatu goizetan izango dira. Izena emateko epea martitzenean, hilak 18, bukatuko da. Argibide gehiago Jardunen, 943 76 08 19 zenbakian.

► **Literatura tailerra** Juan Martin Elexpuru idazlearen eskutik, maiatzaren 4tik ekainaren 1era bitartean Arrasaten. Klaseak astelehen eta eguenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak 943 77 00 65.

DEIAK

► **Euskal Herrian Euskaraz** taldeak dei egiten du bihar zapatua, hilak 15, Bilbon egingo den manifestazio nazionalen parte hartzeko. Bihar bertan, joan zen apirilaren 1etik, euskararen ofizialtasunaren alde Euskal Herri osoa zeharkatu duen martxari bukaera emango zaio Bilbon.

► **Gorla Alpino** Taldearen ohiko batzar orokorra domekan, hilak 16. Lehen deialdia 11etan, bigarrena 11:15ean eta hirugarrena 11:30ean. Bazkide gutzietei joateko dei egiten zaie.

► **Pazkuetako herri bazkaria** antolatzeke dei egiten zaie koadrilei martitzenean, hilak 18, 19:30ean Kultur Etxean egingo den bilerara.

► **Fatimara peregrinazioa** maiatzaren 2tik 6ra bitartean,

frantziskotarrek antolatuta. Prezioa 36.000 pezetakoa izango da. Argibide gehiago 943 78 09 51 zenbakian.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, apirilak 19, 18:30ean Seminarioko lokalean.

OHARRA

► **Udal igerilekuak** itxita izango dira apirilaren 20an, 21ean eta 24an, Aste Santuko oporrak direla eta. Era berean, **Kiroldegia** eguenean eta eguakitzean itxita izango da.

JAIK

► San Prudentzio jaiak Elorregin: domekan, hilak 23, auzoko emakumeentzat txokolatea txurroekin Alkartasuna elkarteak, 18:00etan, eta ondoren umeentzako jolasak. Apirilaren 27an, 18:00etan txopo jasotzea eta eguakitzean, hilak 28, 19:00etan izango da Meza Santua.

KINTADAK

► **1925**ean jaiotako bazkaria izango da datorren apirilaren 30ean, 14:30ean Torrekua erretegian. Izen-ematea bertan.

► **1935**ean jaiotako bazkaria Azpeitxi jatetxean maiatzaren 6an. Txartelak Azpeitxi jatetxean bertan edo Lazpiur harategian eskura daitezke.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Doble traicion
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

All about Eve
Eguena, hilak 27: 21:30.

ARRASATE. Alai zinema

El hombre bicentenario
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Yoyes

Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Uzanga

Las normas de la casa de la sidra
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Bialto


Erin Brockovich
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

La milla verde
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola

El talento de Mr. Ripley
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
El hombre bicentenario
Domeka: 17:00.



DOBLE TRAICION

Zuzendaria: Bruce Beresford.

Aktoreak: Tommy Lee Jones, Ashley Judd. ≥13 urte

Travis Lehmanek (Tommy Lee Jones) baldintzapeko askatasuna aztertzeko bulegoan lan egiten du eta, ustez senarra hiltzeagatik sei urte espetxean eman dituen *Libby Parsonsek* (Ashley Judd) ihes egin du. *Libbyren* helburu bakarra senarra benetan hiltzea da, ustez hilda egon arren, bizirik dago eta. *Travis* bere atzetik joango da.

ALL ABOUT EVE

Zuzendaria: Joseph Leo Mankiewicz.

Aktoreak: Bette Davis, Anne Baxter, George Sanders. ≥13 urte
1950. urtean errodututako "All about Eve" (Eva al desnudo) filmeak Oscarretarako 14 izendapen jaso zituen; Titanic-ek bakarrik berdindu du marka. Antzerki munduan girotutako istorio honetan Bette Davis, Anne Baxter eta George Sanders aktore paregabeen interpretazioekin gozatzeko aukera izango dugu. Jatorrizko bertsoan, gaztelarazko azpitituluekin.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



Amillaga, gasolindegian ondoan. Tf.: 943 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak Fatxadak, eskapareak...



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Jose Javier Larrañaga, Marcos Larrañaga y Cia. enpresako burua, "Urteko enpresa gizona" izendatu zuten joan zen zapatuan Donostian. Aurten lehenengoz, bi pertsonari eman diote saria; berari, eta Jose Ignacio Igarzari, Larrañagaren lehengusua eta konpainia bereko kide.

G. Pozik sariarekin?

E. Pozik bai, baina ez pentsa honelako gauzen oso zale naizenik, argazkietan irtetekoa eta abar.

G. Zuen aitak, Marcos Larrañagak, sortutako enpresaren buru zara, eta saria eman zizuten egun berean bere hileta elizkizunak ospatu ziren.

E. Bai. Eta bai Jose Ignacio Igarzak baita neuk ere, saria geure aita izandakoei eskaintzeko aprobetxatu genuen, eurak ezin izan baitute bizi sari hau.

G. Nola jakin zenuen sarirako izendatu zintuztela?

E. Donostiako asesore batzuek deitu zidaten eta Jose Ignacio Igarza eta biok sarirako izendatu behar gintuztela esan. Hasieran ez zidan grazia handirik egin eta Jose Ignaciorekin kontsultatu ostean, berari ere ez. Hala ere, baiezkoa eman genuen, eta egia esan ez genuen uste aukeratuko gintuztenik.

G. Orain arteko sariak pertsona bakarrari eman zaizkio. Aurten Jose Ignacio Igarzari eta zuri, lehengusak gainera, zer dela eta?

E. Sari banaketan aurkezleak esandakoaren arabera, saritu dutena elkartzeko joera izan da; hau da, Euskal Herrian enpresa munduan banatzeko joera dago elkartzekoa baino gehiago, eta guk biok kontrakoa egin dugu: orain 50 urte banandu ziren bi en-

JUAN CARLOS LARRAÑAGA
Marcos Larrañaga y Cia.ko gerentea

"Saritu dutena, Ibili eta Lacorren izan dugun elkartzeko joera izan da"



Juan Carlos Larrañagak "Urteko Enpresa Gizona" saria jaso berri du.

presa ordezten ditugu, Ibili eta Lacor, eta integratu egin gara. Saria hortik doa.

G. Zertan da Lacor eta Ibiliren integrazioa?

E. 1949. urtean, aitak, Marcos Larrañagak, Lacor sortu zuen, eta Ibilik bere aldetik jarraitu zuen. Enpresa hauek biak, euren aldetik aritu izan dira 50 urte haue-tan. Hasiera batean, bideak

nahiko paraleloak izan ziren, biek, lapikoak egiten zituztelako. Urteak joan ahala, bideak banatzen joan ziren: Lacorrek ostalaritzako produktu herdoilgaitzen bideari ekin zion, eta Ibilik produktu gainestaliei (itsasgaitzei), eta ez dugu ibilbide honetan elkar topatu. Oso harreman ona izan dugu bi enpresok, eta zirkunstantzia batzuk direla medio, iaz Ibili eta Lacorren integrazioa gauzatzeko harremanetan hasi ginen.

Integrazioarekin, izan den aldaketa bakarra jabetzarena da, hau da, Jose Ignacio Igarza Ibiliren jabe egin da, hainbat sozio baitzeuden, eta Ibiliren ehuneko ehuna Lacorri aportatu dio. Ekarpen horren trukean, Lacorren partizipazio bat hartu du. Aldaketa honakoa da azken batean: Marcos Larrañaga y Cia. Lacor eta Ibiliren jabe da, eta Marcos Larrañaga y Cia.n lehenagoko jabeek gain, bazkide berri bat dago, Jose Ignacio Igarza.

G. Alemaniako Wagner enpresaren izena erosi berri duzue.

E. Hasierako proposamena enpresa erostea izan zen, baina ez zitzaigun interesatzen; marka erostea aldiz bai. Alemaniara zabalteko asmoa genuen, Frantzia dugun bezalako garapen komertziala egiteko, eta Wagner izena eta honen sarea erosi ditugu. Dagoneko eratauta dago Lacor-Wagner Alemanian. Bergaran fakturazioa eta banaketa egiten da Alemaniako. Apustu handia da hau, produktuaren kalitatea hobetu beharra dugulako eta bestetik zerbitzua ere bai, eurak 8 eguneko epean eskatutakoa izatera ohituta daudelako. Firma hau erosteak, bi urtetan salmentak %15-20 giotzea ekarriko digu.

"Alemaniako Wagner enpresaren izena, Frantzia dugun bezalako garapen komertziala egiteko asmoz erosi berri dugu"

GIDE COLOR

ZURE PINTURA DENDA

Egurra babesteko tratamendua

Burdina herdoiletik babesteko

Paper pintatuak, zenefak
pintatzeko txantiloiak

Moketak eta sintasola

Oholtza flotagarria



Milaka kolore
egiten ditugu
momentuan



Luis, zuen zerbitzura.

Ordutegia: 08:00-13:00 eta 14:30-19:15 Zapatuetan: 09:30-13:00

Tf. 943 76 52 42. Faxe 943 76 56 17. Amillaga 5 (Renault ondoan)

Aprobetxa ezazu aukera hau!



**Preziorik
onenak
poltsikoko
telefonian**

Trimo

Zurradero 4
BERGARA
943 76 59 52

Banatzaile Ofiziala

7.000
pezetaraino deietan

Konsultatu baldintzak
Apirilaren 25era arteko balioa du eskaintzak

Telefonica
Movistar

Inoiz baino abelburu eta postu gehiago Erramu Zapatuko ferian

Ibargarai eta Frontoiko lanak direla eta, Bideberrin egokituko dira hainbat postu


Inoiz baino postu gehiago izango dira aurtengo Erramu Zapatuko ferian, 240tik gora. Abelburuak ere 120 inguru, eta nobedade gisa, hiruzpalau bufalo eta hogeitabat basahuntz ikusi ahal izango dira animaliei dagokienez.

Feria zapatu goizeko 9:30ean zabalduko da eta urtero legez, abelburuak, Euskal Labeleko produktua eta nekazaritza makinarria egongo dira ikusgai. Euskal Labeleko produktuei dagokienez, San Martin plazan, Simon Arrieta plazan eta Seminarioan kokatuko dira. Bertan, gure baserrietako hainbat jaki ikusi, das-tatu eta erosteko aukera egongo da: barazki ugari, ogia, gazta eta ez-tia esate baterako.

ABELBURUAK UGARI

Abelburuak, Ibargarai kalean kokatuko dira, eta 120tik gora izango dira haragitarako ganadua eta ardi latxak kontuan izanda. Ganadua- ren kasuan, Gipuzkoako hainbat tokitatik ekarritako hiru arraza egongo dira ikusgai: pirenaika, limosina eta blonda.

Beste alde batetik, Irundik Pariseko ganadu feria batera eramandako idisko eder bat ere egongo da ikusgai. Berritasun gisa, hiruzpalau bufalo eta hogeitabat basahuntz ikusi ahal izango dira. Makinariari dagokionez, Seminarioan egongo da ikusgai.



120 abelburu inguru egongo da azokan eta nobedadea, bufaloak eta basahuntzak izango dira.

ARTXIBOA

KOKAPEN ALDAKETAK

Bestalde, orain arte Frontoian jartzen ziren txoznak, bertako zoluko baldosak aldatzen ari direla, eta, Bideberrin jarriko dira; bai txoznak eta baita posturen batzuk ere. Horrez gain, Ibargarai kalean jartzen ziren postuak, lanengatik, San

Martin plazan jarriko dira. Honegatik guztiagatik, Ibargarai kalea, 4. zenbakitik aurrera, Telefonicako aldapa, Irala, Bideberri eta frontoiko monolito pareko apartakalekuak libre utzi beharko dira goizean goizetik. Beste alde batetik, kale hauek guztiak eta baita San Martin

plaza ere trafikorako moztuta egongo dira goizean zehar. Hori dela eta, trafiko guztia bariantetik desbideratuko da.

Bestelakorik ere izango da azokarekin batera egun osoan zehar, eta gaueko 22:15ean, bertsolari jaialdia izango da Udal Pilotalekuan. Bertsotan, Egaña, Lizaso, Peñagarikano, Sarasua, Irazu eta Mendiluze arituko dira, eta gai jartzaile lanetan Inaxio Uzarralde.

TXORIMALO LEHIAKETA

Jardunek antolatutako Txorimalo lehiaketa ere egongo da ikusgai goizean. Inoiz baino txorimalo gehiago aurkeztu da lehiaketara, 46 hain zuzen ere. Ibargarai kalean egongo dira ikusgai eta sari banaketa 12:30ean izango da.



Inoiz baino partaide gehiago izango da Txorimalo lehiaketan: 46.

ARTXIBOA

Udala "21 agenda" martxan jartzea aztertzen ari da

Udaleko Ingurugiro Batzordeak, "21 agenda" martxan jartzeko Ingurugiro batzarra antolatzea proposatu du. "21 agenda" k, garapen jasangarriaren printzipioa du oinarri, eta herri mailako ingurugiro arazoei aurre egiteko sortu da. Bestalde, arlo ekonomiko, sozial eta kulturalak ere biltzen ditu.

Gure artean oso ezaguna ez den arren, Nazio Batuek 1992. urtean onartu zuten, eta Euskal Herrian badira hainbat herri martxan jarri dutenak, Arrasate, Tolosa, Bilbo eta Gasteiz beste batzuen artean.

Bergaran, sortu berri den Udaleko Ingurugiro batzordea, gaia sakon aztertzen ari da eta epe labur-ertainean honen inguruko



Herritarren partehartzea ezinbestekoa da ingurugiro zaintzeko.

ARTXIBOA

proposamena egitearen garrantzia azpimarratu du. Honekin, sortze prozesu honetan, Administrazioarena bezala, herritarren inplikazioa eta partehartzea ezinbestekotzat jotzen dira. Hori dela eta, herritarren parte har-

tzea bultzatzeko, Ingurugiro batzarra eratzea proposatzen da. Batzarrean, guztion artean arazoak identifikatu eta beharrezko neurriak planteatuko lirarteke, arazoen eragina gutxitu edo desagertarazteko.

Txapa irratia ren programazioa

Berritasun eta aktualitateko gai askorekin dator Txapa Irratiko apirilko programazioa. Eguaztenetik zapatara luzatzen da Txapa Irratiaren emisioa eta honakoa da egunegun eskainiko dutena hilabetearen zehar: eguaztenean 17:00etatik 22:00etara izango da emisioa, eta magazina, musika saioa eta ipuin psikotikoak entzuteko aukera izango da. Eguenean, 20:00etatik 22:00ak bitartean, "Pikulitxako kronikak" eta munduko informazioa gerturatuko digute Txapakoeak. Eguakitzean, zinea eta musika izango dira nagusi. Zapatuari dagokionez, musikari buruzko saioak nagusituko dira.



Deialdia, EPEHK, Bergarara pltaformak, AAKk eta Senideak-ek egin dute.

Presoen eskubideen aldeko manifestazioa

Euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko manifestazio isila egingo da bihar, zapatua, eguerdiko 12:00etan San Martin plazatik abiatuta. Deialdia, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak-ek, Euskal Presoak Euskal Herrira-k eta Bergarara Plataformak egin dute. Euskal preso

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A



GRUPO ZURICH
ASEGURUAK

Gurutzne Elkoro Gabilondo



Barrenkalea 44, behea
Tf./Faxa: 943 76 57 85

**ANDRES
PINTURAK**

*Berriztatze-lanak
Obra zuria
Estaldurak
Dekorazioa*

Zubiaurre 19.
943 76 14 24/689 90 53 37

Berrigara

406 zenbakia.
2000ko apirilaren 14a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxe: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Alex Labaien,
Mariji Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberebizbar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko argazkia:
B.U.A. Juan Idigoras fondoa

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurtaritzako
Kultura saila

gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxe: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

EUSKARARI ERASORIK EZ!

Badakigu lan handiaren ondorioz, azken urte hauetan, euskarak aurrera egin duela esparru askotan, oztopo guztien gainetik. Baina partidu estatalistek, eta bereziki PPK, ezin dute Euskal Herria euskaldun baten etorkizuna onartu. Horregatik, aurreko urteetan euskarari eginiko erasoak are eta gogorragoak bihurtzen ari dira azkenaldian.

Eraso hauek oso ongi planifikatuak eta euskarak aurrera egin dezan saiatzeko ari diren euskalgintzako talde eta instituzioei zuzenduak dira Paris eta Madriletik: AEK, Arabako euskara taldeak, Iparraldeko Euskal Departamendua, EHEko militanteak, Nafarroako Uni-

bertsitate Publikoa, UEMA etabar daude erasoaren jopuntuan.

Agian, oihartzunik handiena izan duen eraso UEMAREN aurkakoa izan da. Udalerrri euskaldunen mankomunitateak euskararen erabileran lortu duen normalkuntza ezin izan dute jasan PPkoek, eta erakunde honen aurka zuzen-zuzen jo dute.

Beraz, eraso gogor hauen aurrean hortzak erakutsi behar dizkiegu, gure hizkuntza defendatuz eta berau gure herriko txoko guztietara zabalduz. Euskarak merezi duelako, Euskal Herrian euskaraz.


*Bergarako
Euskal Herrian
Euskaraz*

ASTE SANTUAN BERRIGARARIK EZ

Aste Santuko oporrak direla eta, datorren eguakitzean, apirilak 21, ez da BERRIGARARIK kaleratuko. Hurrengo alea apirilaren 28an helduko zaizue zuen etxeetara. Bien bitartean, ondo pasa Aste Santuko oporrak.

tira biraka gorka ugarte & jon alvarez

HARK-**EK** 11.000 KM ZERAHATZAN KORRIKA...



... BERGARARA IRITSI DEN ARTE! ...



GORKA ETA JON'00©

atrebentzia ezpada

bai, esan!

Aste Santu atarixan garela eta, zuenian bijilixia egitteko ohiturarik badaukozue?



Berta Osa

Lehen egitten giñuan, baina aspaldixan lagata daukogu, ez dakitt zegaittik. Gaztiak be ez dabe zertzen bai, eta horregaittik seguru asko.



Martin Orellana

Ez dot behin ere egiñ. Emaztiak egitten dau, eta amanian ere egitten giñuan, baina neuk ez.




Isabel Sorazu

Ez daukagu ohiturarik. Gurasuekin bizi giñanian bai, baina oiñ dala urte pillua.



Manuel Lijo

Ez dot behin ere egiñ. Eleizan sinisten dot, baina bijilixetan ez.



Luis Velasco

Andriak beti egiñ izan dau, baiña neuk ez. Barazkixak, gainera, ez jat gustatzen.



Nieves Albisua

Bai, egitten dogu, oiñartian beti. Seme-alabak be, lau dauzkou eta batek eitten dau. Ohitturia galtzen doia.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

AUTOBUS GELTOKI ONDOKO BIDEGURUTZEA

Paca izeneko emakue baten deia jaso dugu aste honetan. Pacak kotxe istripu larria izan zuen duela urtebete Ramon Maria Lili eta Ibargarai kaleen arteko bidegurutzean, lehengo Beheko Estaziñoaren parean hain zuzen.

Ramon Maria Lili kaletik behera zetorrela, San Antoniotik Ibargaraira zetorren auto baten kontra txoke egin zuen Pacak eta ondorio larriak jaso zituen istripuaren erruz. Berak bezala, puntu horretan istripuren bat izan duen jendearekin kontaktuan jarri nahi luke Pacak, bidegurutze horrek lehen zuen arriskua frogatu ahal izateko epaiketari. Kasu beretsuan dagoen jendeak 609 77 01 33 telefono zenbakira deitu diezaioke Pacari.



COMERCIAL BRUNET

Ozaeta 11-13, behea - **BERGARA** (Gipuzkoa)
Tf. 943 76 31 52 - Tf./faxa 943 76 70 12 - Mugikorra: 670 824 976

SALMENTA ETA KONPONKETA



Bezero eta lagun guztioi Erramu zapatu ederra opa dizuegu!




Debagoieneko eta Debabarreneko banatzaile ofiziala:



adituen esanetan

Alergiak



ALBERTO ALTUBE

Dietista

"Inork ez daki alergien benetako arrazoia zein den. Estatistikek diotenez, hiri handietan herri txikietan baino kasu gehiago izaten dira"

Alergia arazoak gorpuzaren defentsa faltagatik ematen dira batik bat. Defentsak kutsaduragatik (hartzen dugun arnasa ez da hain garbia gaur egun), aire egokituaren erruz (bazter denak sikatu eta zikinak sortzen ditu gure inguruan) edo, bestela, herentziak galduta ditzakegu. Dena den, inork ez daki alergien benetako jatorria zein den. Estatistiken arabera, frogatuta dago hiri handietan herri txikietan baino kasu gehiago izaten direla. Ingurugiroaren egoera okerrera doanez, 2010. urterako biztanleriaren %50ak alergia motaren bat izango dela kalkulatu da. Estatuari dagokionez, 7 milioi alergiko daude (horietatik 3 milioi janariren bati diote alergia) eta, kuriosoa bada ere, 1970.etik hona jaiotakoaren artean kasu gehiago izan da aurreko belaunaldietan baino.

Alergien sintomak jakinekoak dira: doministikuak, mukiak, nekea (alergikoen kasuan gibelak lan bikoitza izaten du garbitasuna eta depurazioa egiteko), beherakoa, buruko-mina... Sintomak tratatu aurretik, alergia-aren arrazoia bilatu behar da lehenbizi, alergia zerk sortarazten digun, hortik aurrera tratamendua zehazteko. Dena den, gomendio orokor batzuk jarraitzea komeni da: magnesioa hartzea (birikiak erlajatzeko), C bitamina ere bai (erresistentzia handitzeko), B6 bitamina (asmatikoen-

dako oso aproposa), karotenoak (kolore gorria duten elikagaiak) eta berakatzak onak dira. Depurazioa hobea lortzeko, berriz, jaki garbiak (fruta, barazki, oliba olio, limoia, alkatxofak, etabar) eta arnasa garbia (mendi irteerak eginez adibidez) hartzea ezinbestekoak dira eta, era berean, igeriketa eta yoga ere primeran etorriko zaigu. Ondo lo egiteak ere berebiziko garrantzia dauka, atsedean on batek defentsak sortzen dituelako.

Kasu askotan, alergikoen (asmatikoen kasuan esaterako) maila psikologikoa ere asko sufritzen dute, arnasa ez galtzeko zerbaiten beharra somatzen dutelako. Estuasun momentuetan zutitzea (birikiak zabaltzeko), bizkarrean masaiak hartzea edo ur-epelarekin toaila busti eta gorpuzean jartzea gomendatuko nieke asmatikoei.



Esnekiei alergia dien gero eta jende gehiago dago. ARTXIBOA

bergarako errota



URIETA BOLU

©ndoko hauek agertzen dira 1890eko zentsu ofizialean Urieta-errotan helbideratuta: Jose Migel Gantxegi Maiztegi, 31 urtekoa, eta Pedro Jose Maiztegi Narbaiza, 40 urtekoa, biak nekazariak.

Ignacio Gantxegi errotrari moduan agertzen da 1895ean.

1899ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (GAO):

"Jose Domingo Mendigutxia jauna, Elgetako herritarra, Bizente Monzon bergarar jaunaren izenean, gaur egun Urieta errota erabiltzen duen ur-saltoa handitzeko baimena eskatzen du. Ur-salto hori Bergarako udalerrian dago, eta Deba erreka urekin dabil. Orain zortzi metro eta hogeitazentimetroko ur-jauzia egin nahi da.

Desbideratutako ur-emia 1.500-ekoa izango da; eta urtegia gaur egun dagoena. Ubide berria, 780 metroko luzerakoa, erreka eskuinaldetik doa.

Makinaren gela Gregorio Garitano jaunaren lursailetan kokatuko da, horretarako behar den baimena emana du eta".

1901eko GAO baten bidez badakigu Francisco Elgarresta jauna -"Sociedad Comendataria Vergarajauregui Resusta y Compañía"ren izenean- zela Urieta errota aprobetxamendua jabea; geroago beste aldirikari ofizial baten agertzen den moduan.

Eraikin horrek bi etxebizitza zituen, horietako bat errota. Etxebizitza eta errota Telesforo Monzon euskal politikari nazionalistaren aitak saldu zituen 1920 inguruan.

Azken errotraria Isidro Arrietalzanizbeakoetxea izan zen, 1956an hila, 80 urte zituela.

Urieta-Errota delakoak Deba erreka urekin egiten zuen lan, erreka ezkerrean dago eta. Hiru harri pare zituen. 1926an egin zuen lan azken aldiz.

KOKAPENA: Elorregi auzotik Bergarako herrigunera doan errepidea hartuta, Elorregitik kilometro batera eskuinaldean dagoen lehen baserria.

Antxon Agirre Sorondo





El Salvadorren etxeak eraikitzen

Mari Cruz Anduezak 15 egun eman zituen martxoan El Salvadorren. **Gipuzkoako Oscar Romero solidaritza batzordearen ize-nean** joan zen honako helburu honekin: Mitch hurakanak eragindako kalteen ostean, hango biztanleei laguntzeko dirua eman zuten bergarrei, berau zertan inbertitu den erakustea. Debagoieneko herritarrek zein hainbat udalek emandako **27 milioi pezetak** honetan erabili ditu gobernuz kanpoko erakunde honek: bi milatik gora laguni hilabeterako janaria erosten; hurakanak txikitutako ur potzuak berritzen, eta 40 etxe eraikitzen lurretik metro eta erdiko altuerara, ura sartu ez dadin. Argazkian Mari Cruz Andueza eta bere izeba **Mertxe Aranburu** eraiki berri diren etxeetako batean bizi den familiarekin.



San Martzial gazte-gazte

Gazte Lokalaren aldeko asanbladak joan zen asteburuan San Martzialen antolatutako akanpadara jende asko hurbildu zen. Larunbat goiz zein arratsaldean eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, bapo bazkaldu eta hainbat jolas egin zituzten bertaratutakoek. Bestalde, **Pepik, Zigorrek eta Gabik kontzertua** eskaini zuten. Iluntze aldera atertutako egin zuten eta afarian ehundik gora lagun izan ziren. Afaldu eta gero, **Factoria 77** taldeak musika saioa eskaini zuten eta goizaldera ginkana eta txokolate beroa izan zen guztientzat. Ea, akanpadaren arrakastak aurrera jarraitzeko kemena ematen dien gazte hauei!



Hamaika paristar Bergarako alde zaharra aztertzen

Ecole D'Architecture de Paris Belleville-ko 11 ikasle eta 2 irakasle izan ditugu aste osoan zehar herrian. Arkitekturako hirugarren mailan daude, eta ikasturte bakoitzean hau bezalako irteera bat egiten dute arkitektura eskolatik kanpo bizitzeko asmoz. Bergarara, honen alde zaharra ikustera etorri dira. Egun hauek berau aztertzen eman dituzte, Pariseko euren eskolan sakonago lantzeko asmoz, eta **Hondarrabia** ere ezagutzen dutenez, biak alderatuta, Bergarakoari buruz zera esan ziguten ikasleek: "patrimonio bizia da, ez Hondarrabikoa bezala, museistikoa". Argazkian, **Ariadna** San Pedro kalea Zabalotegirekin lotzen duen kale kantoian.

Gainean dugu dagoeneko Aste Santua, astebete besterik ez da geratzen, eta zuetako askok oporretara joateko azken prestaketak egiten jardungo duzue seguru asko. Abuztuko oporraldietaz aparte, egun hauek izaten dira atsedenerako edo bidaiatzeko aprobetxatzen ditugun jai-egunak. Hala ere, askotan ahaztu egiten dugu aste honen benetako jatorri erlijiosoak, eta horixe ezagutu nahi izan dugu hain zuzen ere: antzina nola ospatzen ziren jakin. Egiten ziren prozesioak, elizak nola apaintzen ziren, garai hartako ohiturak...

Gabonetako opor egunak urrun geratu zaizkigu dagoeneko, eta abuztukoak ere ez dira berehalakoan iristen. Hori horrela, Aste Santuko jai-egunak atsedenerako eta oporretara kanpora irteteko egun aproposak izaten dira gehienontzat. Gizartea aldatzen ari den honetan, Aste Santuaren esanahi erlijiosoak alde batera geratzen ari dela argi dago; ikusi besterik ez dago Aste Santuko ospakizunetan zenbat jendek parte hartzen duen gaur egun, eta zenbatek duela urte batzuk. Antzinako Aste Santua ezagutzeko, beraz, zer hobetik bizi izan zuen norbaitekin egotea baino. Horrela, Natalio Juaristi, gaur egun Santa Marina parrokiako laguntzailea denarekin, eta Maria Urriategi eta Pilar Murgoitioekin hitz egin dugu, eta hainbat kontu jakin ahal izan dugu.

GARIZUMAKO HAINBAT OHITURA

Nataliok dioskun bezala, Garizuma Aste Santurako prestatzeko garaia da. Jesukristok basamortuan egin zuen baraualdiaren oroitzapenetan penitentzia eta otoitz egiteko garaia da. Garizuma, ihauteri inguruan hasten da, hausterre egunean hain zuzen ere, eta berrogei egun irauten du, Erramu-domekara arte.

Natalio Juaristik 88 urte beteko ditu laster, eta gerra aurreko garaiak ezagutu zituen, baita gerra aurreko Aste Santuko ospakizun bereziak ere. Bere esanetan, Garizumarekin batera, kristau-erlijioarekin lotutako hainbat ohitura

zeuden, gaur egun ia denak galdu baldin badira ere. Alde batetik, penitentzia modura, eta Jesukristoren baraualdiaren oroitzapen gisa, eguakitzero "bijilia" egiten zen, hau da, eguakitzetan ezin zen okelarik jan, "ezta oilo-salda-

Eguenerako eliza guztiak dotore apaintzen zituzten, eta herritar guztiak elizaz eliza ibiltzen ziren monumentuak ikusi eta erreztatzen

rik be", dio Nataliok. Gainera, eguakitz santuan egun guztiko baraualdia egiten zuenik ere bazen.

Bijiliaz gain, bazen garai hartan beselako ohiturarik ere. Adibidez, Garizuma hastearekin batera, domekero plazan egiten zen dantzaldia ere bertan behera geratzen zen, ezin baitzen garai horretan dantzarik egin. Kantatzea ere gaizki ikusita zegoen.

LAZARO EGUNA ETA ERRAMU DOMEKA

Aste Santuaren atarian ospatzen ziren bi egun hauek. Erramu domekaren aurreko asteburuan, domekan, Lazaro eguna ospatzen zen, Jesukristok Lazaro berpiztu zuela oroitzeko. Hala ere, esan behar da antzina Garizumako edozein eguakitzetan egiten zela gurutz-bidea, eta ez Aste Santuan bakarrik. Horrela, eta Natalio Juaristirekin



Aste Santu

Prozesioek partaidetza hid



Prozesioa Zubieta kaletik behera, 1920 inguruan ateratako argazki batetan. Lehenengo planoan, gizonetako bat kandela batekin; beste guztiak emakumezkoak dira.

B. U. A. KO BILDUMA
(M. TERESA PEÑA)

Antzina

hodia izaten zuten Bergaran

hitz egiterakoan, Lazaro egunean "kalbarixua" edo gurutz-bidea egiten zela jakin ahal izan dugu. Herri guztiak parte hartzen zuen Santa Marinatik irten eta San Joxeperako bidea egiten zuen prozesioan, musika banda eta guzti.

Bertan, Lazaroren pasoa ere ateratzen zen arren, gurutz-bidea egiten zen. Beraz, bi ospakizunak nahasten ziren. Lau taldek osatzen zuten prozesioa. Lehenengo emakumeak joaten ziren, gero apaiza bandera beltzarekin, eta azke-

1900. urte inguruko prozesio baten argazkia dugu honako hau, Urdangarin pasealekutik igarotzean. Lehenengo Nazarenoaren irudia ikus daiteke; atzetik, Dolorosarena.

B. U. A. JUAN IDIGORAS
FONDOA



nik, banda eta Lazaroren irudia. Prozesioa latinezko kantuak abestuaz egiten zen, eta gurutz-bidean ohikoak diren hamalau geldiuneak ere egiten ziren. Geldiune bakoitzean Aita Gurea errezatu eta prozesioarekin jarraitzen zen.

Erramu domeka egunean, berriz, Garizumaren bukaera eta Aste Santuaren hasiera markatzen duen eguna, San Pedrok irtetzen zen prozesioa Soledade aldera, eta herri guztia zeharkatzen zuen prozesioak. Ibilaldi luzea egiten omen zen, Nataliok dioskunez.

EGUEN SANTU

Eguenerako herriko eliza guztiak dotore apaintzen zituzten garai hartan: Santa Marinakoa, San Pedrokoa, Mariaren Lagundikoa, Trinidadekoa, Seminariokoa, Sierbetakoa eta Ospitalekoa (gaurko Mizpirualde egoitzaren ondoan dagoena). Altareak lorez, kandela eta abarrez hornitzen zituzten, eta herritar guztiak elizaz eliza ibiltzen ziren monumentuak ikusi, otoitz egin eta eliza bakoitzean dirua ematen. Maria Urriategik esan digunez, egun horretan familiar edo lagunartean ibiltzen zen jendea zazpi bisitak egiten; bikoteak ezin omen ziren elkarrekin ibili. Eguen Santuan Jesukristoren azken afaria ospatzen da, eta monumentuak eukaristia goraiatzeko izaten ziren.

Eguen Santu egunean, San Pedrok irteten zen prozesioa. San Pedro kale aldera abiatzen ziren, handik beheko plazara, eta Masterreka, Zubietako zubitik Santa Marinako parrokiara iristen ziren. Bertan, "Christus factus" a eta "Misere novis" a kantatzen zuen koruak besteak beste. "Ave Maria" ere kantatzen zioten bertan jartzen zen monumentuari. Handik berriro eramaten ziren pasoak San Pedrorra. Prozesio honetan nazarenoa, Jesukristo gurutzea eramaten, eta ortu-santuaren pasoa ateratzen zituzten, eta baita Ama Birjina ere, kapa urdin batekin jantzita.

EGUAKITZ SANTU

Eguakitz iluntzean kalbarixua edo gurutz-bidea egiten zen Santa Marina eliza barruan. Aurrean San Juan joaten zen, gero ortu-santua, Jesukristo otointzean egon zen olibalekua, gero nazarenoa (Jesukristo gurutzea gainean daramala), Kristo hilda atzetik, eta azkenik, Doloretako ama terziopelozko kapa beltz bat jantzita. Paso guzti hauek



1920 inguruan, Eguakitz Santuko prozesioan.

B.U.A. KULTURA DEPARTAMENTUKO BILDUMA (NIEVES GOIRIZELAIA)

Mariaren Lagundian gordetzen ziren, eta bertako mojek janzten zituzten. Gaur egun ere bertan daude, baina ez dute jantzirik, bustoak bakarrik gordetzen dira. Kristo hilda errepresentatzen duen irudia kristalezko kaxa batetan joaten zen, eta urte guztian zehar hilerrian egoten da. Kristalezko kaxa hau Eustakio Agirreoleak egin zuen, Pilar Murgoiatik azaldu digunez.

Ospakizun honek fama handia hartu zuen, eliza bete-bete egiten zen. Natalio Juaristiren esanetan, koruak kanta asko abesten zituelako hartu zuen fama hori, eta batez ere, bertan "In flamatús" a abesten zelako. Bere esanetan, Roman Gonzalez Bastidak kantatu zuen kanta hau azkenengo aldiz. Eta gehiago ez da kantatu.

PAZKUETAKO DOMEKA

Zapatuan berpizkundeko meza ospatzen zen, baina oso jende gutxi biltzen zela gogoratzen du Maritxu Urriategik. Domekan, berriz, solemnidade gehiagorekin ospatzen zen berpizkundea. Kanean, musika banda, danbolinteroak, txistulariak eta abar ibiltzen ziren, dantzaldiak eta kontzertuak egiten ziren; guzti hau Jesukristoren berpizkundea ospatzeko. Nataliok esan digunez, gainera, etxean ere hobeto jaten omen zen, eta ia orduro ematen ziren mezak. Jesukristoren berpizkundea "Manolito" bezala ezagutzen den Jesukristo batek sinbolizatzen zuen. Manolito hau Jesukristo haurra zeneko irudi bat da, eta berau ere Enseñanza gordetzen zuten. Domekan, San Pedro parrokiara era-

maten zuten "Manolito" herriko mutikoek, eta bertatik alkatearen etxera. Gaua bertan igaro ondoren, hurrengo egunean, San Pedro plazara eramaten, eta bertan Ama Birjinarekin elkartzen zen. Ekitaldi hau oso famatua zen herrian, eta Berrigararekin hitz egin duten guztiak bat etorri dira esatean, herritarrek debozio handia ziotela "Manolito"ri. Ama Birjina San Pedro elizatik ateratzen zuten, eta plazan elkartzen zen Jesukristo berpiztuarekin. Bertan, erreberentzia egiten zion Ama Birjinak "Manolito" haurrari.

Aste Santuan egiten ziren prozesio guztietan, pasoen ostean, eskola-umeak joaten ziren irakasleekin, gero banda, atzean herriko autoridadeak (alkatea, zinegotziak...), eta azkenik, herriko emakumeak, gizonetzkoak prozesio barruan joaten baitziren, batzuk pasoak eramaten, eta beste batzuk, berriz, prozesio aldamenean.

Prozesioetan eta kalbarixotan, ban-dejekin diru-eskean ibiltzen omen ziren "señoritoak" Natalio Juaristik azaltzen digunez. Herriko mutil gazte hauek "Kristoren entierroako" edo "Jerusalengo herri santuetarako" eskatzen omen zuten diru hori.

Nataliok, prozesioekin lotutako beste ohitura bat ere kontatu digu. Prozesioak edo gurutz-bideak amaitu ostean, emakumeak etxera joaten ziren bitartean, gizonetzkoak Gasparrenera antxoak jatera joateko ohitura omen zegoen.

Ohitura hauek guztiak, hala ere, galduta daude. Gerra aurreko ohiturak dira gehienak. Hala ere, eliza barruko kalbarixo edo gurutz bideak mantentzen dira.<

Domekan alkatearen etxera eramaten zuten "Manolito", eta gaua bertan igaro ostean, Ama Birjinarekin elkartzen zen hurrengo goizean San Pedro plazan.



Ama Birjina eta "Manolito"ren irudiak, Mariaren Lagundiako komentuan gordetzen dira gaur egun.

AMA BIRJINAREN ARGAZKIA: B.U.A. JUAN IDIGORAS FONDOA



GASTON Y DANIELA

Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37
BERGARA

Inglesina. bebe' comfort Banatzaile ofiziala



BEEP



T. Aranzadi 3, Bergara 20570
 Tf. 943769127 Faxa 943769325
 e-maila: bbergara@datalogic.es

**Laster hasiko
 dira informatika
 ikastaroak**

**Zure beharretara
 egokitutako ikastaroak**

**METODOLOGIA
 ZEHARO BERRIA!**

Jesus Raigoso nafarrak irabazi zuen Gorlako txakur leren lasterketa

Eguraldia lagun, Bergarako eta inguruko herrietako ikusle ugari izan zen Gorlan domekan jokaturako txakur leren lasterketan. Bergara Mushing elkarteak antolatutako VII. edizioan 40 partaide izan ziren.



Ikusle ugari bildu zen domekan Gorlan txakur leren lasterketa jarraitzeko.

Jesus Raigoso "Lobito" nafarrak eskuratu zuen garaipena, 26 minutu eta 38 segunduko denbora eginez. "Lobito"k lau txakurrekin konpetitu zuen eta Itoiz Armendariz atxabaltarrari (27:09) eta Goyo Del Real madrildarrari (27:17) nagusitu zitzaizen erlojupeko lasterketan. Armendariz eta Del Real euren kategorietan nagusitu ziren: atxabaltarra zortzi txakurrekin aritu zen eta madrildarrak 6 txakurrekin tiratutako lerarekin konpetitu zuen. Goyo Del Real azken edizioetan irabazlea izan dugu Gorlan baina domekan zirkuitua nahiko lokaztua zegoen eta horrek kalte egin zion. Partaideek 9,5 kilometroko ibilbidea bete behar izan zuten domekan, kantinatik Trekutzerako zirkuitu lokaztua eginez.

Bestalde, Iñaki Muñoz oñatiarrak eta Carole Esteve frantziarrak cani-cross modalitatean hartu zuten parte, txakurren atzetik korrika eginez, txakur-lerarik gabe. Ikusleen artean harridura piztu zuten biek ere: Iñaki Muñozek 35 minutu eta 33 segundu behar izan zituen eta Carole Estevek 47:04ko denbora egin zuen.

Pulka kategorian (bizi-kletarekin eta txakurrekin)

izan ziren partaide gehien, 17 guztira. Nafarrak izan ziren nagusi. Javier Alemanok egin zuen denborarik onena (29:57), Eduardo Zubiria (32:57) eta Enrique Nuñezen (37:27) aurretik.

Antolatzaileak pozik azaldu ziren lortutako partaidetzarekin eta ikusleek emandako erantzunarekin. Gorlara joandakoek irteeran bildutako txakurrak gertutik ezagutzeko aukera izan zu-

ten. Kantina inguruan 300 txakur inguru zeuden, nordikoak gehienak. Alaskanoak (nordikoen eta arrazako txakur bizkorren nahasketa) ziren nagusi. Iosu Urrutia iruñenarrak, berriz, gurean oso ohizkoak ez diren groenlandiarrak ekarri zituen. Eskimalek erabiltzen dituzten txakurrekin laugarren postua eskuratu zuen Urrutiak (49:58), 8 txakurrekin irten baitzen.



Foru Aldundiko kirol teknikariak Bergaran

Kote Olaizola Foru Aldundiko kirol zuzendaria, alkatearekin eta Kirol zerbitzuko arduradunekin bildu zen eguakitzean, udalak, herriko kirol beharren inguruan, abenduan igorritako informean jasotakoa gertutik ezagutzeko. Aldundiko teknikariak Agorroseringo igerilekuak eta Labegarrietako Kiroldegia bisitatu zituzten. Udaleko ordezkariak barruko igerilekuak berriztearen premia azpimarratu zituen Aldundiko kirol zuzendariari eta badirudi Aldundia prest dagoela arazoari irtenbide bat topatzen lagutzeko.



Argazkian, iazko txapelketako finalistak.

INAKI UGARTEBURU

Pala txapelketa jokatu da Angiozarren maiatzetik aurrera

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, maiatzaren 6tik aurrera binakako pala txapelketa jokatu da Angiozarreko Arbiaska pilotalekuan. Bertan gomazko pilotekin jokatzen duten Debagoieneko kirolariek parte hartu ahal izango dute.

Txapelketako lehen fasea liga erara jokatu da eta ondoren final laurdenak, finalerdiak eta finala jokatu dira. Partiduak 35 tantotara izango dira eta puntu horidun pilotak erabiliko dira. Izena emateko epea maiatzaren 4ra arte zabalik izango da Kirol Zerbitzuan. Bazkideek 1.500 pe-

zeta ordaindu beharko dute (jokalaria bakoitzeko) eta gainontzekoek, berriz, 2.000 pezeta. Izena ematen duen bikote bakoitzak ordezeko jokalaria baten izena eman ahal izango du, eta beste inork ezin izango du bikote horrekin jokatu.

Txapelketa Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatzen duten zirkuiturako puntuagarria izango da. Txapeldunek 12 puntu eskuratuko dituzte, azpitxapeldunek 10 eta, hirugarren sailkatzen direnek, 9 puntu. Final laurdenetara iristen diren bikoteek ere seina puntu jasoko dituzte.

ARETXABALETAKO FINALA

Bestalde, Aretxabaletako pala txapelketako finalerdiak eta finala jokatu dira astebukaera honetan. Zapatuan, 16:00etan, Martin eta Oier Urigoitiak Edorta Antxia eta Gorka Madinabeitiaren aurka jokatu dute. Ondoren, 17:00etan, Jon Alberdi bergararrak eta Inigo Agirrebeña eibartarrak Jaime Acedo eta Asier Murua-mendiaraz bergararrak izango dituzte buruz-buru. Domekan, 11:00etan, 3. eta 4. posturako finala izango da eta eguerdiko 12etan finala, Aretxabaletako pilotalekuan.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Idiazabal

Infantilak
Zapatua, 11:30. Ipintza

Bergara-Trintxerpe

Bigarren mailako jubenilak
Zapatua, 16:30. Ipintza

Bergara-Almen

Neskak
Zapatua, 18:15. Ipintza

ARETO FUTBOLA

Bergara-Intxaurren

Neskak
Domeka, 12:00. Kiroldegia

ESKUBALOIA

Bergara-Arrate Amaña

Jubenil neskek
Zapatua, 16:30

SASKIBALOIA

Bergara-Donostia

Senior neskek
Zapatua, 16:00. Mariaren Lagundia

Bergara-Lagunak (Irun)

Jubenil mutilak
Domeka, 12:15. Mariaren Lagundia

KARATE

Infantil mailako Bergara Hiria III.
Karate txapelketa domekan, 10:00etatik aurrera Udal Pilotalekuan.

PILOTA

PROFESIONALAK

- Alustiza-Zearra/
Unanue-Errandonea
- Lasa III.a-Errasti
- Gorostiza-Balardi/
Minguez-Pinedo

Domekan, 17:00etan, Udal Pilotalekuan BERGARA HIRIA TXAPELKETA **Muguruza-Peñagarikano/ Amarika-Bengoetxea** (promesak) **Agesta-Martinez de Eulate/ Elorrieta-Zabala** (lehen maila) Martitzenean, 19:30ean, Udal Pilotalekuan.

Eskiatzera joateko irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak apirilaren 21etik 29ra Deux Alpesera joateko eski irteera antolatu du. Argibideak asteleheneetatik eguenetara jaso daitezke 19:00etatik 20:30era Pol-Poleko bulegoan. 943 76 48 51.

Osasuna-Manchester

Realak urtero antolatzen duen gazte mailako futbol txapelketaren barruan, Manchester United eta Osasuna futbol taldeen arteko partidua jokatu da Agorrosinen datorren apirilaren 22an, 17:00etan.

Mendi irteera domekan

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gorla Alpinok egun osoko mendi irteera antolatu dute domekan, hilak 16, Villafria-Lalastrara joateko. Irteera 19:30ean egingo da Pesatik. Txartelak Pol-Pol tabernan salgai.

Mendi bizikleta irteera

Domekan, hilak 16, mendi bizikleta irteera egingo da. Irteera 9:30ean egingo da autobus geltokitik eta ibilbidea honako hau izango da: Bergara, Oñati, Aratz, Degurixa, Urkulu, Bedoña eta Bergara.



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

18:30. A Ze Flaxa-Shaktale **Mongatxurrak**
19:30. Mongatxurrak-Urrutxurtu **A Ze Flaxa**

DOMEKAN BARRUAN

09:00. Bildurbarek-A Ze Flaxa **Errotagain**
10:00. Errotagain-Pagomendi **Antolaketa**



Txapelketaren azken txanpa

Labegaraietako futbito txapelketaren azken txanpan, partidu interesgarriak izan genituen aurreko astean. Kopa txapelketan Uve Bikoitza, Artusamak, Fac, Orzi eta Guadalest taldeek aurrera egin zuten euren kanporaketak gainditu ostean. Liga txapelketari dagokionez, Errotagain taldeak 6-2ko emaitzarekin irabazi zion Amoskibarri eta Bayer taldeak 10-2ko emaitzarekin menderatu zuen Sirimiri Eri. Biek ere liga txapelketan zehar erakutsitako maila onari eutsi zioten eta merezimendu osoz lortu zuten sailkapena.

Astebukaera honetan lau partidu besterik ez dira jokatu. A Ze Flaxa taldeak lan bikoitza izango du; zapatuan Shaktalaren aurka neurtu beharko ditu indarrak ligako kanporaketan eta domekan Bildurbarek taldearen (argazkian) aurka jokatuko dute kopa. Kopa txapelketaren barruan Mongatxurrak-Urrutxurtu eta Errotagain-Pagomendi kanporaketak ere jokatuko dira.

mahoneroak



LUIS MARI BLANCO
Bergarako jokalaria

Partidu txarra izan zen domekako, Santurtziren aurkakoa. Garaipenaren bila zelairatu ginen eta hasierako minutuetan nagusi izan arren, ez genuen arrisku gehiegirik sortu. Berdinketa emaitza positiboa den arren, hiru puntuak eskuratu eta azken tokietatik ihes egiteko aukera paregabea galdu genuen. Hainbat baja ere bagenituen domekan eta taldeak beharbada igeriko zuen hori.

Joaneko partiduan erraz irabazi genion Santurtziri 3-0eko emaitzarekin, eta domekan ere irabaziko genuela uste nuen, baina gauzak ez zitzaizkigun nahi bezala ateratu. Beraiek ere gol-aukera pare bat izan zituzten eta baloi bat postera bidali zuten lehen zatian. Partiduko azken ordulaurdenean, berri, erasora jo genuen, baina golik ez zen izan eta berdinketarekin konformatu behar izan ginen. Liga amaitzeko bost partidu falta dira eta hiru irabaztea (birekin ere nahikoa izan daiteke) ezinbestekoa da. Ea Arenasen aurka sorpresa ematen dugun astebukaeran.

Informazio hau babesle hauei esker:



OGIZUN

koop. elk. okindegia

San Pedro 21	Zubillaga z/g
BERGARA	OÑATI
943 76 20 49	943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

talde federatuen emaitzak

FUTBOLA

Santurtzi 0; Bergara 0
Hirugarren maila
Bergara 8; Usurbil 0
Lehen mailako jubenilak
Idiazabal 3; Bergara 0
Bigarren mailako jubenilak
Ilintxa 1; Bergara 4
Neskak
Bergara 8; Hernani 0
Ohorezko kadeteak

Bergara 3; Amaiak Bat 1

Lehen mailako kadeteak
Billabona 2; Bergara 3
Infantilak

ESKUBALOIA

Urola 10; Bergara 23
Jubenil neskek
Bergara 22; Mutriku 19
Senior mutilak

SASKIBALOIA

Etxadi 71; Bergara 61
Senior neskek
Bergara 74; Ordizia 71
Senior mutilak
Arrasate 61; Bergara 53
Jubenil mutilak
Bergara 26; Easo 68
Kadete mutilak

ARETO FUTBOLA

Bergara 4; Eibar 7
Jubenil mutilak

PILOTA

Deba Arroko txapelketan, Orgaz eta Herranek 22-10 irabazi zioten Eibarko bikoteari. Martitzenean, finalerdia izulerako partidua izango da Eibarren.



Saillapen orokorra:

Jokin Mendaratz 12 puntu
Oxel Apraiz 10 puntu
Jose txo Lizarralde 9 puntu
Asier Rodriguez 9 puntu
Gorka Dueñas 9 puntu
Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika ohorezko kadete mailako futbol taldea

Promozioa oso hurbil

BERGARA 8

HERNANI 0

Bergara: Aitor Elgero, Mikel Ilarduia, Mikel Rodriguez, Txomin De Vega, Andoni Ibaibariaga (Anaitz Egaña, 60. min.), Unai Agirre (Iñigo Albistegi, 60. min.), Jon Blazquez, Aitor Baz (Igor Lete, 60. min.), Iban Eraña, Beñat Perez (Aitor Marcos, 60.min.) eta Imanol Cabanillas (Aritz Oregi, 60.min.).

Lehen zatian ikusitakoaren arabera, Bergarako ohorezko mailako kadeteek us tekabeko emaitza lortu zuten domekan, Hernaniren aurka. Fernando Oregiren mutilek gol bateko abantaila lortu zuten hasierako 40



Argazkian, Hernaniren aurka zelairatutako hasierako hamaikakoa.

minutuetan eta atsedendiaren ostean zazpi gol egin zizkieten hernaniarrei. Bergarak sailkapeneko bigarren postuari eutsi zion eta, azken jardunaldiko emaitzen ondoren, Sporting Herrera liderraren atzetik, aurtengo denboraldian gol

gehien egin dituen taldea dugu. Igandean, Ipintzan, Imanol Cabanillas eta Beñat Perez aurrelariak hiruna gol sartu zituzten, eta Unai Agirrek eta Igor Letek bana.

Lehen zatia ez zen oso ikusgarria izan eta, zelai erdian etxeokak nagusitu

arren, ez zenb golik iristen. Cabanillasek egin zuen partiduko lehen gola lehen zatian erdialdean eta Hernanik, aldiz, ez zuen arriskurik sortu bergararren area inguruan. Hala ere, bi taldeak ere nahiko eskas aritu ziren eta jokoa nahiko aspergarria izan zen lehen zatian. Partiduko jokaldirik onenak atsedendiaren ostean ikusi ahal izan ziren; etxeokak askoz hobeto jokatu zuten eta, ondorioz, bisitariak gol zaparrada jaso zuten. Hirugarren gola jaso ondoren, oso irudi eskasa eman zuen Hernanik.

Esan bezala, liga amaitzeko lau partidu falta direnean, Bergara sailkapeneko bigarren postuan dago, Real Sociedad eta Lengokoak taldeen aurretik. Sporting Herrera ia lehen postua ziurtatuta dauka eta igoera promozioa jokatzeke Bergarak bigarren postuan amaitu beharko du liga. Hala ere, ez dituzte partidu errazak izango, etxetik kanpo hiru partidu (Real, Eibar eta Ilintxaren aurka) eta Ipintzan bakarra (Aurrera Ondarroa) jokatu beharko dutelako mahoneroek.

MIKEL ETXEBERRIA / Saskibaloia jokalaria

"Kategoriari eutsiko diogula uste dut"

Zapatuan Ordiziari ozta-ozta irabazi ondoren, Bergarako senior mailako saskibaloia taldeak mailari eusteko aukera dauka oraindik. Mikel Etxeberria basea (gaur 28 urte egiten ditu) taldeko jokalaririk beterranoetakoa da.

G. Garaipen inportantea zapatuko...

E. Bai, larri ibili ginen, ia partidu osoan atzetik markagailuan. Baina azkenean garaipena eskuratzea lortu genuen.

G. Mailari eutsiko diozue?

E. Liga amaitzeko hiru partidu besterik ez dira geratzen eta hirurak irabazi beharrean gaude. Taldea animo aldetik ondo ikusten dut eta lortuko dugulakoan

nago, nahiz eta bi partidu etxetik kanpo ditugun.

G. Zelako denboraldia egin duzue orain arte?

E. Kanpoko partiduetan, egia esan, nahiko gaizki aritu gara eta etxean, aldiz, askoz hobeto. Epaileek zerkusi handia izaten dute, eta etxean asko laguntzen ez duten arren, kanpogan garaipena lortzea ezinezkoa izaten da askotan.

G. Zeintzuk dira zure alde onak

eta txarrak kantxan?

E. Zaila da erantzutea. Jokoa kontrolatu, erritmo egokia markatu eta kideei aukera onak eskaintzen ahalegintzen naiz.

G. Noiz arte jarraitzeko asmoa?

E. Ziurrenik aurtengoa izango da nire azken denboraldia, lagatzeko asmoa dut.

G. Saskibaloian hasi aurretik futboleko jokatzeko zenuen.

E. Nire anaia saskibaloian hasi zen eta animatu egin ninduen. Futboleko ez nintzen oso ona eta saskibaloia gehiago gustatzen zait, jokatzeke zein ikusteko.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Bidekurutzeta.
Antzuolan. Etxabea.
619 133 836.

Pisu txiki bat salgai
Antzuolan. Etxabea.
943 76 60 20 (gauez).

Pisua salgai Zubietan.
Deitu 943 76 12 61
telefonora.

EROSI

Bergaran etxea erosiko
genuke. 943 21 99 02.

Etxea erosiko nuke alde
zaharrear. 943 76 38 25.

Etxebizitza erosiko nuke
Bergaran. 943 76 09 99.

ERRENTAN EMATEKO

Laredon, hondartzan,
pisua errentan Aste
Santurako.
619 80 91 69.

Bungalow bat Torrevie-
jan, udan. Hondartzatik
gertu. 943 78 14 72.

ETXE KONPARTITUAK

Etxea konpartituko
nuke. 627 046 374
(Diego).

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartitua
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktua
Deiak
Bestelakoak

Logela hartuko nuke
alokairuan, sukaldarako
eskubidearekin.
943 76 46 64, goizez
(Marilo).

Pisua konpartituko nuke.
667 52 48 98 (Andres).

2. GARAJEAK

SALDU

Antzuolan, Zurrategin.
943 76 64 00.

Bolu. 2 plaza.
Deitu 616 049 865
telefonora.

Antzuola, Kalegoi.
Deitu 943 76 47 16
telefonora.

Masterreka (Pertxa
azpian). 696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun.
943 76 19 69.

Ibargarai. 1.500.000 PTA.
943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan
Boni Laskurainen.

943 76 47 67.

Garajea alokairuan
Zubiaurren.
943 76 23 53.

S. Marina. 943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea har-
tuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

EROSI

Lokal komertziala erosi

nahi nuke S. Lorentzen.
300 m². Interesatuek
deitu 607 82 53 06 -
telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta
Arruriagan (18 m²)
lokala alokairuan.
Deitu 606 96 23 80
telefonora.

Mugertzako gainean
35 m²ko lokala alokai-
ruan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Mar-
tokon. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAITZAK

Dendako lanetan
eskarmentudun emaku-
mea lanerako gertu.
943 76 07 69.

Eskailera eta garajeak
garbitzeko esperientzia-
dun pertsona lanerako
gertu. 943 76 35 38
(Antonio).

Mutil gaztea lanerako
gertu. 616 664 851.

Mutil gaztea soldatzaile
edo beste edozertan
jarduteko gertu.
646 820 371.

Apunteak, lanak eta
era guztietako doku-
mentuak ordenadorez.
646 095 338.

Esperientziadun
ileapaintzailea; 26 urte.
Deitu 629 483 847
telefonora.

Neska, administrari la-
netarako eta ordenado-
rez informea pasatze-
ko gertu. 943 76 73 11
(Garbiñe).

Etxeko lanak, umeak
zaindu edo dendari
lanak. 636 76 25 70.

Etxeko lanak, haurrak
zaindu edo dendari lanak.

**Lokal komertziala
alokairuan
Osintxun.
140 m²**

943 76 47 62

**Tabernarako
ZERBITZARIA
behar da**

943 76 59 19

PILAR MUÑOZ



oleo-erakusketa

NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

X Bataioak,
jaunartzeak,
enpresa bazkariak
eta lagunartekoak

X Karta eta menu
berezien zerbitzua



BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tf.: 943 79 24 58

943 76 60 56 (Joana).

Neska euskalduna goizez lan egiteko gertu. 943 76 23 41.

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

ESKAERAK

Norbait behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 52 79 (gauez).

Emakumea behar da edadetu bat arratsalde zaintzeko. Deitu 943 76 24 66 telefonora.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

9-13 urtekoei mate, ingeles e.a. 943 76 33 68 (Maite).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (injinerutza, 1. maila). 943 76 10 44.

Injinerutzako 2. mailako C programari buruzko klaseak hartuko nituzte. Deitu 943 78 09 66 telefonora.

Logseko 1. mailako fisika, kimika eta matematikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 10 44.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Renault Clio 16V. 93.000 km., egoera onean. 943 76 16 02.

Scooter Buxsy 49 cc. motorra. 4.500 km. 943 76 34 80.

Opel Corsa 1.2 (SS-Y). 943 76 37 84.

Suzuki motorra. la berria. 130.000 PTA. 943 76 37 83.

Ford Orion. 300.000 PTA. Egoera onean. 943 76 54 19 (Raul).

VW Passat 1.6. SS-T. 943 76 57 71.

Citroën AX 1.4. SS-AB. 200.000 PTA. 630 750 099.

Opel Kadett GSI 16V. Egoera ona. 943 79 75 11 /98 08 (Mikel).

8. DENETARIK

SALDU

Karro denda, Inesca Viena. la berria. 943 76 43 80.

Mendiko botak (43 zkia.) eta futboleko zapatillak (41 zkia.). 943 76 33 59.

Tronpeta berria, prezio onean. 943 78 70 52.

Aluminiozko 16" lanta berriak. 195/60 Vectra. 943 76 28 07.

Goiko kargadun Otsein garbigailua prezio onean. 943 76 29 60.

Hiru deposito: 8.000 litroko bat eta 1.800eko bi. 943 76 12 36.

Alpen Kreuzer karrodenda. 943 76 39 87.

16" lantak salgai, egoera onean eta merke. Deitu 943 76 54 19 telefonora.

Bi oheko logela oso bat eta egongelako armarua salgai. Estreinatua gabe. 943 12 74 03.

Terrazarako 12 mahai eta plastikozko 50 aulki, prezio ona. 943 76 07 92.

Karro denda egoera

onean. Deitu 943 78 70 74 telefonora.

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

HARTU

Katakume arra hartuko nuke. 943 76 12 86.

GALDU

Cocker arrazako txakurra galdu dut, kanela kolorekoa, San Antonio inguruan. 943 76 08 70.


Belarritakoa galdu dut Zurrao eta San Antonio artean. 943 76 27 74.

Neskatalaren paparreko orratza galdu dut Zubiaurre eta Labegaraie-ta artean. 943 76 07 52.

Martitzenean, hilak 4, Donostiatik Bergararako autobusean sobrea hartu zuenak deitu diezadala (Maribi). 943 76 08 57.

BESTELAKOAK

Conor bizikleta urdina harrapatu didate Artzamendi 17an. Deitu 943 76 10 10 telefonora.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

ILEAPAINZAILERA
Ibai eskumaldea. 29119/2

WEB ORRIALDEAK DISEINATZEKO IRAKASLEA
Bilbo. 29147/2

LANGILE-GOZOGILEA
Markina-Ondarra. 30417/5

LIBURU PROMOTOREA
Ibai eskuinaldea. 30470/2

BANATZAILERA
Arabar lautada. 30550/3

INFORMATIKA KOMERTZIALA
Sondika. 30672/6

SUKALDARIA
Bilbo. 30677/5

SUKALDARI LAGUNTZAILERA
Zarautz. 31260/1

IGELTSEROA
Gasteiz. 30696/4

ELEKTRONIKAKO KOMERTZIO TEKNIKARIA
Bilbo. 30750/4

ZINPEKO ZAINDARIA
Eibar. 30895/4

PLANU KALKATZAILERA
Bilbo. 30939/1

KOMERTZIALA
Bilbo. 31155/1

KOMERTZIALAK, 2
Arabar laut. 31189/2

KOMERTZIALA
Bilbo. 31214/4


SUKALDARIA
Zarautz. 31259/3

APAREJADOREA
Bilbo. 31267/5

KOADERNATZAILERA
Bilbo. 31300/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakizetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Lora eta hosto prentsatuaren ikastaroa



Maiatzaren 2tik ekainaren 10era

Bi talde: A: martitzenetan 15:30-17:30 eta zapatuetan 09:30-11:30

B: martitzenetan 18:30-20:30 eta zapatuetan 11:30-13:30

Prezioa: bazkideek, 4.500 PTA; besteek, 5.000 PTA
lzena emateko azken eguna: apirilaren 18a



Informazioa: Kartzela zabarra. Tf. 943 76 08 19

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

Lokal komertziala alokairuan Bolun.

Lau gela bulegotarako prestatuak

943 76 58 91

Masterreka 19, behe. 943 76 46 53.


Ametz

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA

Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.

Antsietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna

Tratamendu personalizatuak eta ondorio gabeak.



Kultura Astean murgilduta egon dira Mariaren Lagundiko ikasleak

Astelehenean hasi eta eguakitzera arte, hainbat tailer zein kultur ekitaldi izan dira Mariaren Lagundian egindako Kultura Astean. Adin guztietako ikasleak kontuan hartuta, bakoitzari egokitutako hamarretik gora tailer eta ekitaldi egon da.

Neska-mutiko txikitxoenek, DBHko ikasleek zein Lanbide Heziketakoek, su zein su gabeko sukaldaritza tailerra, mozorro tailerra, txorimalo tailerra eta beste hainbat izan dituzte egunotan, guztiak adinaren arabera banatuta. Bestalde, nagusienek, mendiko orientazioa jorratu, txalapartaren historia ezagutu, eta graffitiak margotzeko aukera izan dute.

Kultur Astea iaz antolatu zen lehenengo aldiz, Mariaren Lagundia sortu zeneko 200. urteurrena ospatzeko prestatutako ekitaldi sortaren barruan. Honela, ikasle zein gurasoen aldetik izandako harrera ona ikusita, aurten ere antolatu egin da.



Mariaren Lagundiko ikasleek txalapartaren historia ezagutu ahal izan dute aste honetan.

Aipatutako tailerrez gain, zenbait ikuskizun ere izan dira astean zehar DBH zein Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta. Eguaztenean, esate baterako, Antton Irusta ipuin kontalariaren

emanaldia izan zen eta gaur, eguakitzan, Txan Handiarekin magia ikuskizuna. Bestalde, Kultura Asteari amaiera emateko, bazkaria egin dute ikasle zein irakasleek.

Doctor Deseok azken diskoa aurkeztuko du zapatuan Jamen

Bi urteko isilunearen ostean, Doctor Deseo pop-rock taldea, disko berria aurkeztera etorriko da, bihar, larunbata, hilak 15, Jam aretora. "Atrapado en tu silencio... de incertidumbres y caricias" da talde bilbotarraren azken diskoaren izena. Lan bariatua da, ha-

mar abestiz osatuta dago, eta azken bi diskoetan egin bezala, euskarazko abesti bat ere txertatu du: "Morrosko laztana", Unai Iturriaga bertsolariaren hitzekin. Kontzertua gaueko 22:00-etan izango da. Sarrerak, aurrez 1.200 pezeta balio du, eta 1.500 lehiatilan.



Dr. Deseok Jamen eskaintzen duen bigarren kontzertua da gaurkoa.

GARA

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

ileapaindegia
eder gela

—disdira—

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

PILI GISASOLA

Santerri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83



Aritzetako kideek bi kontzertu eskainiko dituzte Cordobako probintzian Aste Santuan.

JABIER ARETIO

Aritzetak Cordoban abestuko du Aste Santuan

Aritzeta Abesbatza Andaluziara joango da Aste Santuan. Cordobako probintziara abiatuko dira hilaren 20tik 24ra artean, eta bi kontzertu eskainiko dituzte; Espartinas herrian bata, eta Montillan bigarrena. Aritzetako kideekin batera, hainbat laguntzaile ere joango dira, 56 lagun izango dira, beraz,

Cordobako probintziara hurbilduko direnak Aste Santuan. Bergarako koralak Cordoban eskainiko dituen bi kontzertuen egitaraua bi ataletan dago banatuta, lehenengoa polifonikoa izango da, eta bigarrenean, Euskal Herrian ohikoak diren kantak eskainiko dituzte, jantzi tradizionalekin jantzita.

Dani Laskurain pintoreak lehenengo saria jaso du Arrasateko Gure Leku tabernan

Dani Laskurain pintore bergararrak Arrasateko Gure Leku tabernak antolatutako pintura lehiaketako lehenengo saria jaso berri du. Laskurainek, itxura ia fetalean dagoen gizaki baten kuadroa aurkeztu zuen, eta tabernako bezeroen aldetik botu gehien jaso dituen izan da.

Bezeroen bozketatik aukeratutako bost kuadroen artean gelditu eta gero,

epaimahaiari ere Laskurainena iruditu zitzaion sariaren ehun eta hogeita bost mila pezetak jasotzeko koadrorik egokiena.

Bestalde, pintore bergararra buru belarri ari da erakusketatik erakusketara: Zarautzen bukatu berri du erakusketa bat eta laster, maiatzaren 9an, hain zuzen ere, beste bat irekitzekoa da Bilboko Lumberas aretoan.

Uxue Otaolaren bigarren koreografia

Uxue Otaola dantzari bergararrak bihar Barakaldo Antzokian egingo den Euskal Koreografo Berrien IV. Erakusketan hartuko du parte. Erakusketa honetan, forma, estilo, teknika eta dantza sortzeko prozesu desberdinak biltzen dira, eta bere helburua, koreografo berriei lagundu eta euren lanak erakusteko aukera ematea da.

Otaolak "Huella (piedra, papel, tijera)" koreografia aurkeztuko du, eta 1998an, erakusketa berean parte hartu zuen "Sokatira" lanarekin.

1996. urtean Bartzelonako Institut de Teatroko Dantza eta Koreografia Goi Eskolako Dantza Garaikideko titulua eskuratu zuen. Ondoren, honako lanetan aritu izan da beste batzuren artean: Emilio Gutierrezen "Proyecto gallina" konpainiako "Dulce viejo" eta "Vicente zurdo" lanetan. Koreografo moduan, "La espera" eta "Sokatira" aurkeztu ditu.



EL CORRIDO ESPAÑOL



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrika 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

iRUDI

Erlojudenda
Bitxitegia

Ibargarai 2
943 6 51 65

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMIA

Ezker eskuma

1. Sartalde. 2. Araudiak. 3. Alde. Hosto. 4. iparraldeko alderdi abertzalea. Zein lekutara. Mila. 5. Munstruoa. Röntgen. Egile atzikia. 6. Emakume izena. Lurrari buelta emateko lanabesa. Nitrogenoa. 7. Infusio-mota. Txerri-ösola eta beste gai batzuk nahasirik egiten den hestebetea. 8. Beldurti. Ate, hitz elkarketan. 9. Adaskak. Herri giputza. 10. Emakume izena. Burua.

Goitik behera

1. Zientzia zehatza. 2. Jasanezin. 3. Naroa. Haur. 4. Daukat. Uranioa. Bururatu. 5. Etenak sortzen diren tartea. 6. Bigarren hizkia. Hutsa. Lehengo eta laugarren bokalak. Errepikatuz, gorotza. 7. Abuztua. Sufrea. 8. Italiako dirua. Pluralean, agiri-mota. 9. Errepikatuz, ikara. Berrogeita hamar. Trebe. 10. Ekintza. Bokal errepikatua.

Soluzioa

Ezker eskuma
1. Mendebalde. 2. Arategiak. 3. Tarte. Orri. 4. EMA. Nora. M. 5. Mamua. R. le. 6. Ana. Lala. N. 7. Te. Odolka. 8. Izuti. Aia. 9. Kimnak. Aia. 10. Ane. Kaskoa.
Goitik behera
1. Matematika. 2. Eramanezin. 3. Narama. Ume. 4. Duz. U. Ortu. 5. Etenaldia. 6. Be. O. Ao. Ka. 7. Agorria. 8. Lira. Aktak. 9. Dar. L. laio. 10. Ekimena. Aa.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar




Bi iturri hauek kale berean daude. Zein da kale horren izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zein abelburu izango dira aurtengo Erramu Zapatuko ferian nobedade?
A- Ostrukak eta basahuntzak
B- 700 kiloko idiskoa
C- Bufaloak eta basahuntzak
2. Nor da Foru Aldundiko kirol zuzendaria?
A- Kote Olaizola
B- Alberto Santano
C- Miguel Etxarri
3. Zenbargarren aldia da Doctor Deseok Bergaran kontzertua eskaintzen duena?
A- Lehenengoa
B- Bigarrena
C- Hirugarrena



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Baltasar Vicente**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Baltasarri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Aranerreak** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Gurelesa
Esne osoa, litroko brika
83 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Pili Arin bergararra den arren, Elgetako San Antonio basarrixan bizi da urte askuan. 50 urte dauzka, eta duela hogeitaseititik da heziketa fisikoko irakaslia. Saltsera samarra ei da, danetik probatzia gustatzen jakuen horretarikua.

Pili Arin

Ze euki bihar dau irakasle batek?

Nik uste dot bihar-biharrezkua dala bokaziñua eukitzia.

Eta zuk badaukazu hori?

Egixa esan, ni neu probatziagaittik hasi nintzan, baiña gero konturatu naiz honetarako bokaziñua eukitzia biharrezkua dala, eta gaiñera badaukatela.

Irakasle gogorra, esijentia zara?

Nere ikasliek esaten dabe oso jatorra naizela, baiña era berian gogorra be banaizela.

Kirolzalia izango zara, ezta?

Bai, oso. Txikittatik gustau izan jat kirola egittia.

Kiroliek gustokuena?

Danetik egin dot, baiña oiñ gehixen gustatzen jatena *voley-balla* da, nere adiñerako kirol aproposa da.

Eta kirolaririk gustokuena?

Andoni Zubizarreta. Nere ikaslia izan zan, eta kirolari moduan gustau izan jat, baiña pertsona moduan be oso jatorra eta umilla da.

Realak zer egingo dau?

Athletic-en aurretik bukatuko dau, seguru-seguru.

Zela moldatzen da kaletar bat basarrixan?

Oso ondo. Gaiñera, kalian etxe txiki baten bizi izan banintza ezin izango neban nere afiziñua eduki, leku asko bihar izaten dalako.

Zela betetzen dozu denbora libria?

Eskulanak egittia gustatzen jat. Altzarixak berriztu, eskulturak egin... Gauza diferentiak egittia eta probatzia gustatzen jat.

Artista gogokoren bat?

Neri gustatzen jatena da, adibidez, ume bat bere imajinaziñua lantzen ikustia.

Amets bat?

Nere inguruak zorionsuak izan daittezen, nik zerbait aportatzia.

Zelakua izan bihar da bestia, zurekin ondo konpontzeko?

Nik uste dot oso erreza dala nerekin ondo konpontzia.

Aste Santurako zer plan daukazu?

Eguzki bila goiaz. Nik uste dot eguzkixan energixiakin kargatzen naizela ni.

Biajatzia gustatzen jatsu?


Ez daukat denborarik. Biharbada beste bizitza batian egingo dot hori be. Baita irakurri eta beste gauza batzuk be.

Nahikua diru eukiz gero, zer egingo ziñuke?

Lehenengo, zuluak tapau. Baiña ez dot uste irakaskuntzia lagako neukenik.

Zela definituko ziñuke zeure burua?

Beti izan naiz errebelde samarra, eta baita saltsera samarra be. Neri danetik probatzia gustatzen jat.



IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia
eta BIOTER produktuak



San Pedro 3. Tf. 943 76 23 79
Ondo ibili Erramu zapatuan!



Ariznoako kamarerak, 1972

Ariznoa hoteleko jatetxean lanean ari ziren emakume talde baten argazkia ekarri dugu aste honetan erretratu zaharrera. Garai batean Ariznoako jatetxea ospetsua zen Bergara inguruan, eta bertan ezkontzak, jaunartzeak, bataioak eta bestelako ospakizunak izaten ziren behin baino gehigotan, jangela nahiko handia baitzen. Horrez aparte, ohizko bazkariak eta afariak eskaintzen zituen gaur egun desagertuta dagoen jatetxeak. Lerro hauek irakurtzen dituen batek baino gehiagok ospakizunen bat izango zuen bertan garai hartan eta, gaur egun Ariznoa tabernara dantzara joaten diren gazteek, berriz, ez dute ziurrenik jatetxearen berririk izango. Taberna ere oraingoa baino handiagoa zen,

gaur Peñalba dendak duen lokala ere hartzten baitzuen.

Goiko erretratua 1972. urtean ateratakoda da. Hor ditugu orduko zerbitzarjak, ohiko kamarera uniformearekin dotore-dotore kamara aurrean, Luz Telleriarte nagusiaren ondoan. Argazkia Uribe argazkilariak atera zien 1972ko urrian, atsedendiren bat aprobetxatuz-edo. Hara hor zeintzuk diren bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Maria Pilar Larrañaga, Ana Mari Riza, Luz Telleriarte eta Asuntxi Iñarra.

Makurtuta: Kati Moreno eta Mari Feli Iri-sarri.

Argazkia: Amaia Arriaran

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09



umelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



GIORGIO ARMANI

DOLCE & GABBANA
Occhiali



ATTITUDE

Ray-Ban

GUCCI

eta zu biluzik?



Ederra janzkia

Merkatuko marka onenak zure esku !!!




Ederra soinekoa

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

zatoz
MULTIOPTICAS -era
eta aukeratu zure janzkera !!!



Scooter 1

DENDA BAKOITZEKO

Zozketa



5.000 PZTAKO EROSKETA BAKOITZEKO TXARTEL BAT

R.P.S. 104/99 Jkta.

Sarean

Masterreka 13, behea. BERGARA.
943 76 91 08



Bergarako Internet gunea



Enpresetarako Internet bidezko soluzioak

- Web orrien programaketa
- Mantenimendua
- Ikastaroak



GRUPO
Amuebladora
Mondragonesa

a eme Interiores

Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE

